

Ebazpena, 2020ko martxoaren 25ekoa, Finantza Politikako zuzendariarena, zeinaren bidez baimena ematen baita COVID-19aren ondorioz enplegua aldi baterako erregulatzeko espedientea edo enplegua erregulatzeko espedientea ezinbestean aplikatu behar izan zaien BGAE-etako bazkideek langabezia-prestazioa kobra dezaten.

Euskadiko borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeen helburu nagusia da beren bazkideei osagarriak ematea premia-egoeretan daudenean.

Badakigun arren gure aurreikuspen-tresnaren azken xedea Gizarte Segurantzako erretiro-pentsioak osatzea dela, COVID-19 koronabirusak eragin duen osasun-alarmaren ondoriozko aparteko egoerak behartuta, ezohiko jarduketak egin beharra dauzkagu langileen segurtasuna babesteko, beharrian ekonomikoak baitituzte, eta, horrez gainera, ahal den neurrian, koma ekonomikoa galarazten lagundu behar dugu.

Horregatik guztiagatik, ikusita langile askoren egoera ekonomikoa larria eta eskasa dela une hauetan, Euskadiko BGAE-ek eta Eusko Jaurlaritzako Finantza Politikako Zuzendaritzak lagundu egin nahi dute, eta, beraz, osatu egingo dituzte osasun-krisialdiaren ondorioz enplegua aldi baterako erregulatzeko espedientea edo enplegua erregulatzeko espedientea aplikatu behar izan zaien langileek kobratuko dituzten langabezia-prestazioak. Beraz, orain, hala eskatzen dutenek enplegua erregulatzeko espedienteen edo enplegua aldi baterako erregulatzeko espedienteen aldi baterako prestazioari lotutako errenta gisa kobratu ahal izango dute, aldi baterako.

Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeen arloan egun indarrean den araudiak zehazten du zer betekizun bete behar dituzten langabezian dauden bazkideek langabezia-prestazioa jasotzeko. Hala ere, osatuko den prestazioa –alegia, langabezia-prestazioa– kobra daiteke gutxieneko iraupen-denbora egiaztatu gabe, eta, horren ildotik, enplegua aldi baterako erregulatzeko espedienteen edo enplegua erregulatzeko

espedienteen kasuetan, BGAE-ek ere ez dute eskatuko langabezian urtebetez egotea pentsio osagarria kobratu ahal izateko.

Horrenbestez, Eusko Jaurlaritzako Finantza Politikako Zuzendaritzak hau ebatzen du:

1. Baimena ematea COVID-19ak eragin duen osasun-alarmaren ondorioz enplegua aldi baterako erregulatzeko espedientea edo enplegua erregulatzeko espedientea aplikatu behar izan zaien bazkideek langabezia-prestazioa kobra dezaten, baldin eta ekarpen finkatuko planak badituzte eta haietan langabezia-prestazioa onartuta badago, nahiz eta estatutuetan edo erregelamenduetan ez egon onartuta enplegua aldi baterako erregulatzeko espedienteen edo enplegua erregulatzeko espedienteen kasuak.

2. Enplegua aldi baterako erregulatzeko espedienteetan, BGAEak emango duen prestazioaren zenbatekoa bi hauen arteko kendura izango da: langabezia-prestazioa kalkulatzeko erabili den oinarriaren % 100, eta enplegua aldi baterako erregulatzeko espedientearen ondorioz langileak kobratuko duen oinarriaren ehunekoak. Ondorioz, bazkideak oinarriaren % 100 kobratuko du.

3. Enplegua erregulatzeko espedienteetan, bazkideak eskubidea izango du prestazioa kobratzeko otsailaren 23ko 5/2012 Legean eta urriaren 27ko 203/2015 Dekretuan araututa dagoen langabezia-prestazioaren baldintza berdinetan (5/2012 Legea, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeena; 203/2015 Dekretua, 5/2012 Legearen Erregelamendua onartzen duena).

4. Kobratzeko eskubidea sortuko da, COVID-19ak eragin duen osasun-alarmaren ondorioz enpresak bazkideari enplegua aldi baterako erregulatzeko espedientea edo enplegua erregulatzeko espedientea aplikatzen dion lehenengo egunetik aurrera, eta hura amaitutakoan azkenduko da.

5. Prestazioa kobratzeko, bazkideak agiri hauek helarazi behar dizkio BGAERI: enplegua aldi baterako erregulatzeko espedientea edo enplegua erregulatzeko espedientea aplikatu diotela egiaztatzen duen agiria; azkeneko nomina eta SEPetik kobratu duela justifikatzen duen agiria –hileroko egiaztatu behar da–.

6. Langile autonomoek ere jaso ahal izango dute prestazioa –betekizun eta zenbateko berdinekin–, baldin eta COVID-19aren ondorioz beren jarduera galdu edo bertan behera utzi badute eta langabezia-prestazioa kobratzeko eskubidea badute.

7. Foru-ogasunek dute zerga-arloko eskumena, hemen arautu diren prestazioei dagokienez.

8. Ebazpen hau Ogasun eta Ekonomia Sailaren web-orrian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko martxoaren 25a.

Finantza Politikako zuzendaria,
FRANCISCO JAVIER ARNAEZ ARRECIGOR.